

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure enpresaren materiala lortzeko material ezberdina behar dugunez, hala nola, plastiko birziklatua, berrerabilitako telak, kortxo birziklatua... enpresa desberdinekin aliatuko gara. Marketinan laguntzeko ere beste hainbat enprekin bat egingo dugu eta elkarrekin produktu bat kaleratuko dugu. Bestaldetik, gure webgunea sortzeko tekniko batzuekin elkartuko gara, webgune erakargarri bat egiteko. Produktuen bidalketa egiteko mezularitza zerbitzu bat azpikontratatu dugu azkenik.

Materialari dagokionez, gure produktuak bi material mota erabiliz ekoiztuko ditugu. Batetik, gure arroparen gehiengoa ekoizteko PET tela erabiliko dugu. Tela hau plastikozko botila erreziklatuetatik lortzen den poliester birziklatua baliatuz sortzen den tela bat da. Tela hau lortzeko gure hornitzaile desberdinekin lana egingo dugu. Bestetik, gure katalogoaren barruan dauden beste produktu batzuek ekoizteko gure inguruko dendekin hitzarmen batera iritsiko gara beraiek saldu ezin dituzten arropak eta telak erabiltzeko. Horrela, janzteko erabili ezin diren arropak zakarretara bota beharrean bigarren bizitza bat edukiko lukete kontaminazioa eta lehen gai berrien ustiapena murriztuz. Horrez gain, inguruko denda eta komertzio txikiekin hitzarmen batera iritsiko gara gertuko komertzioa bultzatuko genuke. Amaitzeko, sandaliak ekoizteko beharrezkoa den kortxo lortzeko bulegoko materiala birziklatzen duen enpresa batekin hitzarmen batera iritsiko gara gehiago erabili ezin diren kortsozko taulak erosiko dizkiegu gure sandaliak ekoizteko. Horrez gain, gure inguruko sagardotegi eta upeltegi desberdinekin akordio batera iritsiko gara erabiltzen dituzten kortxoen portzentai bat erosteko.

Gure marka ezagutarazteko ingurunearen alde egiten duen greenpeace ongarekin kamiseta batzuk ekoiztuko ditugu eta kamiseta horiek saltzean lorturiko diruaren portzentai bat ongarentzat izango da. Horren bidez, gure enpresa ezagunagoa bihurtuko dugu eta horrez gain ingurumena zaintzen lagunduko dugu.

Web orriari dagokionez, gure produktuak saltzeko erabiliko dugun plataforma sortzeko web diseinatzaile bat kontratatuko dugu. Web orria gauzatzeko, honek eduki beharko dituen ezaugarri guztiak zehaztuko ditugu eta webean egon behar duten artikuluko guztiei buruzko informazioa emango diogu.

Gure produktuen bidalketa modu nazional eta internazional batean gauzatzeko mezularitza zerbitzuak ematen dituzten enprekin aliatuko gara. Zehazki, Espainia barruan bidalketa gauzatzeko Correos enpresarekin hitzarmen batera iritsiko gara eta gure produktuak modu internazional batean bidaltzeko UPS enpresarekin beste hitzarmen batera iritsiko gara.